

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Dirección de Servicios

EUSKARAREN ERABILERA HERRIZAINGO SAILEAN



Ohiko euskara ikastaroetara joateko Herrizaingo Saileko Administrazio Orokorreko irizpideak:

- 1. Guztiei eman zaie ikastaroetara joateko aukera, bere lanpostuari dagokion HE egiaztatzeko. Egia esan, eskaeren % 95ari baietz esan diogu.**
 - 2. Teknikariei ikastaroetara joateko baimena eman zaie 4HE egiaztatzeko, bere lanpostuak 4HE ez izan arren. Urte batez joateko aukera izan dute.**
 - 3. Administrariei ikastaroetara joateko baimena eman zaie 3HE egiaztatzeko, bere lanpostuak 3HE ez izan arren.**
 - 4. Euskara ikastaroetako baimenak emateko orduan, kontuan hartu dira aurreko urteko asistentzia eta ebaluazioa.**
-



4.- Ahozko komunikazioak

Herritarrekin	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Lehen hitza: euskaraz. ▪ Elkarrizketa: herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan. ▪ Hartzaile jakinik gabeko mezuak: euskaraz eta gazteleraz, hurrenez hurren. ▪ Euskarazko zerbitzua bermatuko da. ▪ Euskara ez dakien langileak euskararen eskaerari behar bezala erantzuteko protokolo bat ezarri. ▪ Langileek ezingo diote eskatu herritarrari hizkuntza batean edo bestean jarduteko.
Administrazioen artean	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Lehen hitza: : euskaraz. ▪ Elkarrizketa: ahalegin berezia egin euskaraz jarraitzeko, baldin eta solaskidea euskalduna bada.
Jaurlaritza barruko harremana	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Adostasuna tarteko, ahozko jardunak apurka-apurka euskaraz ere egingo dira.
Ekitaldi publikoak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Euskararen erabilera bermatuko dute enplegatu elebidunek EAEko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko ekitaldietan ▪ Teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak baliatuko dira euskara eta gaztelania erabiltzerakoan.



5.- Idatzizko harremanetan

<p>Adminis- trazioak hasten du harremana</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪Euskaraz: <ul style="list-style-type: none"> -Hartzaileak (herritarra, beste administrazioa edo gure administrazioko langilea) aldez aurretik euskara hautatu badu. -Ohiko harremana euskara hutsezkoa bada (hautua egin dela ulertzen da). ▪Euskaraz eta gaztelaniaz gainerakoetan, baina aukera emango da euskara hautatzeko, atalak gaitasuna badu komunikazioa euskaraz egiteko.
<p>Adminis- trazioak komunikazio bati erantzuten dio</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪Gaztelaniaz: gaztelaniaz jasotako idatziari. Atalak komunikazioak euskaraz egiteko gaitasuna badu, euskara hautatzeko aukera emango da. ▪Euskaraz: euskaraz jasotako idatziari..
<p>Komunikazio telematikoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪Herritarrak aukeratutako hizkuntza erabiliko da. ▪Tramitazioaren azken komunikazioa testu estandarizatua denean, ele bietan jasotzeko aukera emango du sistema.



6.- Itzulpenak

- **Lehentasunezko komunikazioak ezingo dira itzuli**, baldin eta komunikazio horiek aurrera atera behar dituenak beharrezko prestakuntza horretarako jaso badu.
- Kanpotik jasotzen diren dokumentuak ezinbestekoa denean bakarrik itzuliko dira. Bestelakoetan, edukiaren laburpena egingo du gaitasuna duen ataleko langileren batek.



7.- Langileen prestakuntza orokorra, euskaraz

- Euskarazko eskaintza gehituko da.
- Erabaki ahal izango da euskara maila altua duten langileei prestakuntzako ekintza batzuk euskaraz bakarrik eskaintzea.



8.- Tresna eta aplikazio informatikoak

- Bi hizkuntza ofizialetan plazaratuko dira, eta horietan **euskarak, gutxienez, %50a** hartuko du.



9.- Internet

- Edukiak **euskaraz eta gaztelera**z kontsultatzeko moduan egongo dira.
- Sartzean aukera egongo da hizkuntza aukeratzeko.
- Izapideak egiteko aukera ematen denean, **izapide horiek gaztelaniaz eta euskaraz egin ahal izango dira**.
- Saitetik kanpoko edukiak barneratzen direnean, bi hizkuntza ofizialak modu orekatuan erabiliko dira; alegia, sortze hizkuntzen arteko oreka izango da oinarri, eta kalitatea zainduko da.



10.- Argitalpenak

- Bi hizkuntza ofizialetan plazaratuko dira, eta horietan **euskarak, gutxienez, %50a** hartuko du.



11.- Hizkuntza paisaia

- Oro har: **euskaraz eta gaztelaniaz.**
- Euskaraz bakarrik:**
 - Errotuluetako hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean.
 - Mezua piktograma batez adierazten denean eta horrela ulergarria denean.



12.- Iragarpenak, publizitatea

- **Euskaraz:** euskarazko hedabideetan.
- **Euskaraz eta gaztelaniaz:** gainerakoetan.
- Komunikazio kanpaina kontratatzerakoan baldintza izango da mezua bi hizkuntzatan sortua izatea.



13.- Diru-laguntzak

- Objektuan hizkuntzaren erabilerak eraginik duenean, laguntzak eta dirulaguntzak esleitzeko baldintzetan hizkuntza irizpideak kontuan hartuko dira, eta irizpideok betetzen direla egiaztatuko da.



Promozioa	Lanpostu kopurua	1HE duten lanpostuen gaineko %			1HE duten lanpostu jabeen bizilekua
		Beteak	lanpostuen gaineko % 1HE duten lanpostuen gaineko %	Bete gabe	
P17	281	119 (42,35%)			Araba 3
		72	lanpostuen gaineko %: 25,62 1HE duten lanpostuen gaineko %: 60,50	47	Bizkaia 46 Gipuzkoa 19 Santander 4
P18	200	60 (30%)			Araba 8
		59	lanpostuen gaineko %: 29,50 1HE duten lanpostuen gaineko %: 98,33	1	Bizkaia 29 Burgos 1 Iparraldea 1 Gipuzkoa 15 Navarra 2 Santander 3
P19	450	60 (13,33%)			Araba 7
		79	lanpostuen gaineko %: 17,56 1HE duten lanpostuen gaineko %: 131,67	-	Bizkaia 46 Iparraldea 2 Gipuzkoa 22 Santander 2
P20	370	110 (29,73%)			Araba 14
		119	lanpostuen gaineko %: 32,16 1HE duten lanpostuen gaineko %: 108,18	-	Bizkaia 74 Iparraldea 1 Gipuzkoa 30
P21	120	50 (41,67%)			Araba 6
		41	lanpostuen gaineko %: 34,17 1HE duten lanpostuen gaineko %: 82	9	Bizkaia 23 Gipuzkoa 12



Ertzain guztiak		
	Zk.	%
Egiaztatu HEarekin	2.389	30,5%
Egiaztatu gabeko HEarekin	5.430	69,4%
Salbuetsiak	6	0,1%
Ertzain guztiak	7.825	100 %

**Lan orduz kanpo euskara ikasi duten ertzainen kopurua
(euskaltegietan)**

Ikasturtea	Ikasle-kopurua
1998/99	262
1999/00	200
2000/01	163
2001/02	209
2002/03	211
2003/04	218
2004/05	219
2005/06	211
2006/07	427
2007/08	552
Guztira	2.672



Eskerrik asko

